



ELKARRIZKETA  
SOZIALERAKO MAHAIA  
MESA DE  
DIÁLOGO SOCIAL

## **EUSKADIKO ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIAREN AKORDIOA EKIALDE HURBILEKO GERRARI BURUZ.**

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 14an, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaia bildurik, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak handieneko enpresa eta sindikatuen parte-hartzearekin,

### **ADIERAZTEN DUTE**

Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaia kezka sakona adierazten du gatazka belikoa areagotzearen aurrean, AEBek eta Israelak Iranen aurka egindako erasoaren ondoren. Nazioarteko ezegonkortasun larria eragin duen testuingurua sortu da, eta ondorio humanitario, ekonomiko eta sozial garrantzitsuak ekarriko ditu.

Halaber, indarkeria gaitzesten du eta kaltetutako pertsona guztiekiko elkartasuna adierazten du, bereziki kolektibo zaurgarrienekin; hala nola, emakumeekin eta neska-mutilekin, gogorrago jasaten baitituzte gatazka mota horien ondorioak.

Mahaia honek positiboki baloratzen du su-eten kordioa, itxaropen leihobat irekitzen baitu, eta ezinbestekotzat jotzen du aurrera egitea borroka eteteko bidean, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren errespetuan eta eskualdean benetako bakea lortzea ahalbidetuko duten elkarrizketa bideak irekitzean.

Diplomaziak eta EBk Ekialde Hurbilean egonkortasuna eta segurtasuna berma dezaten lan egiteko unea da. Egonkortasun horrek bakea lortzen lagundu beharko luke, Ormuzeko itsasarte berritoki ireki eta energia-konexioak eta merkataritza-ibilbide globalak berreskuratu, munduko krisi ekonomiko handi bat saihesteko.

Era berean, egiaztatu dugu gatazkatik eratorritako egoera —ezegonkortasun ekonomikoak, energiaren kostuaren igoerak, nazioarteko merkataritza ibilbideetan izandako etenek eta inflazioaren presioak markatutakoa— ondorio esanguratsuak izaten hasi dela euskal ehun produktiboan. Eta horrek eragina izan du enpresen lehiakortasunean, eta enplegua eta lan-baldintzak arriskuan jarri ditu.

Testuinguru honetan, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaia berretsi du langileak, enpresak eta herritarrak, orokorrean, babesteko konpromisoa, baita jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzekoa ere.

Halaber, beharrezkotzat jo du egoeraren jarraipen etengabea eta koordinatua mantentzea, haren efektuak aurreikustea eta arintzea ahalbidetuko duten neurriak sustatzeko helburuarekin.



Ildo horretan, positiboki baloratzen da euskal industria ehunaren erresilientzia indartzera bideratutako ekimenak martxan jartzea, Industria Defentsarako Taldean adostutakoarekin bat etorritik, gatazken eragina murrizten lagunduko duen ezkutu bat eratzeko helburuarekin.

Era berean, lehentasuntzat jotzen da honako neurrietan aurrera egitea:

- Energiaren prezioak egonkortzea.
- Sektore estrategikoetan, prezio eraketaren mekanismoak zaintzea.
- Indarrean dagoen legedian aurreikusitako tresnak aktibatzea, enpresen bideragarritasuna bermatzeko eta enpleguaren suntsipena saihesteko.

Hori guztiagatik, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak ADOSTU DU bere kideen artean hausnarketa eta komunikaziorako bide iraunkorra mantentzea, gerraren inpaktu sozioekonomikoa minimizatzea ahalbidetuko duten neurri guztiak sustatzeko eta bultzatzeko.

Zehazki, aurreko krisietan Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren baitan adosturikoaren modu beretsuan, ADOSTU DU, modu progresiboan eta beti gerraren egoera eta euskal ekonomiaren gaineko ondorioak kontuan hartuz, honako neurriak diseinatu eta ezartzea:

- Gerrarekin lotutako enplegu erregulazioko espedienteei atxikitako langileentzako langabezia prestazioak osatzea. Horretarako, eta bere eskumenen esparru zorrotzean, Eusko Jaurlaritzak diru osagarri bat ezarriko du, Irango gerrak eragindako sektoreetan, ERTEetan dauden langileen –zaurgarrienen eta soldata txikiak dituztenen– langabezia prestazioen gainean, enplegua mantentzeko derrigortasuna izango dutenak. Zehazki, 2.000.000 euroko aurrekontua ezarriko da 23.000 euro edo gutxiagoko kotizazio oinarriak dituzten langileentzat, hileroko 175 euroko zenbatekoarekin lanaldiaren ehunekoa % 50 baino gehiago duten pertsonentzat eta 125 eurokoa lanaldia % 50 baino txikiagoa dutenentzat.
- Gerraren ondoriozko krisian dauden sektoreetatik datozen langabeak birkalifikatzea eta berriro kokatzea, esku hartze integral baten bidez, zeinak euren profilak lotzen dituen enpresek dituzten behargin kualifikatuen beharrezanekin (Aukera berri). Zehazki, Irango gerrak eragindako sektoreetatik datozen pertsonentzako birkalifikatzeko eta berriro kokatzeko programa bat diseinatuko da, 1.500.000 euroko zenbatekoarekin, sektore horietatik etorri eta langabezia dauden kolektiboetara zuzenduta daude, eta Industria Sailak zehaztuko ditu.



Programak “pasabide” malguak eta antolatuak artikulatuko ditu langabezia egoeran dauden hartzaileen eta enpresetako langile kualifikatuen beharriaren artean, prospekzio sistema baten bidez detektatuko dira, eragile sozialen (enpresa eta sindikatu erakundeak) eta beste eragile kualifikatu batzuekin lankidetzan.

- Kontratazioaren sustapenerako programak. Ildo horretan, gerraren ondorioen eragina jasaten duten langabeentzat eta/edo enpresentzat sarbide formulak ezarriko dira diskriminazio positiboarekin, gehienez 100 milioi euroko zenbatekoarekin.

Eta adostasunaren froga gisa, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko alderdiek aurkezpenean adierazitako lekuan eta datan akordio hau sinatzen dute.

Eusko Jaurlaritzaren izenean

Sin.: \_\_\_\_\_

Sin.: \_\_\_\_\_

Sin.: \_\_\_\_\_

Euskadiko enpresa eta sindikatu erakunde esanguratsuenen izenean

Sin.: \_\_\_\_\_

Sin.: \_\_\_\_\_

Sin.: \_\_\_\_\_